

thinking **Fadura**

Getxoko Kirol Parke Berria

**Fadurako Garagardotegia Zentro
Sozialaren Aurreproiektua**



Getxo
KIROLAK *bizi ezazu*

www.thinkingfadura.eus

SARRERA

THINKING FADURA, GARAGAR- DOTEKIA ETA PARKEA

Getxo Kirolak kirolen udal-erakundeak zuzentzen du “*thinking Fadura. Getxoko Kirol Parke Berria*” proiektua; hots, Fadurako kiroldegia eta ingurunea berriz diseinatzeko parte-hartze prozesua, kirol-parke irekia egite aldera.

thinking Fadura proiektu orokorraren esparrua da Getxoko Europako Kirolaren 2014ko Hiri bezala duen izendapena, Getxo Kirolak-ek bultzatuta, eta, era horretan, udalerrira kirolaren, hiriaren eta hiri-garapenaren arteko harremana ondoen bultzatzen duten herrien buruan aurkitzen da.

Fadurako egungo Udal Kirol Hiria Gobela ibaiak zeharkatzen du, eta “Fadurako zonaren hobekuntza hidraulikorako jardueren Proiektuan” murgilduta aurkitzen da, Uraren Euskal Agentziaren (URA) eskutik, aurrez gertatutako uholdeak berriro ez errepikatzearren. Ibaier-tzen aldaketa fisikoaren ondorioz, Getxo Kirolak-ek *thinking Fadura* parte-hartze prozesua abian jartzea erabaki zuen, kiroldegia hiriarentzat erreferentziazko guneko publikoa izan zedin, kirol-instalazioak jarduera eta guneko publiko berriekin elkartze aldera abonatuentzat.

Proiektu horrekin batera, Fadurako garagardotegi zaharra berreraikitze beharra sortu zen, 2016ko otsailean gertatutako sutea medio lehengo instalazioak erabili ezinik geratu baitziren. Hori dela-eta, birgaitzeko proiektua instalazioak hobetzeko erabiltzeaz gain, proiektu

pilotu ere bilaka daiteke, Fadurako komunitatea ezagutzen hasi ahal izateko eta etorkizuneko kirol-parkearen prozesuan aplikatu litezkeen dinamika eta metodologia parte-hartzaileak probatzeko.

DOKUMENTU HONI BURUZ

Dokumentu honen helburua da ondorengoak deskribatzea: abiapuntuko baldintzak (testuinguru hiritarra eta soziala, eragileak, e.a.), garagardotegi berria diseinatzeko tailer parte-hartzaileak eta prozesuaren sintesi moduan proposaturiko azken diseinua deskribatzen duten dokumentu teknikoak (aurreproiektua).

Parte-hartze prozesua: *thinking Fadura*

2017ko martxotik ekainera bitarte egindako kontsultaren prozesu murriztua da; bertan, parte-hartzaile ezberdinak (klubak, taldeak, elkarteak eta udal-ordezkariek) bildu ziren, garagardotegiaren beharrak ezagutu eta aukera berriak identifikatzeko aldera. Prozesu horretatik aurreproiekturako ondorioak eta gomendioak atera ziren.

Aurreproiektua

Aldez aurretiko azterketa-fasean aurkitzen den proposamen teknikoak da. Bertan, diseinu arkitektonikoaren gidalerroak, espazioen banaketa, erabileren programa eta balioespen ekonomikoa jasotzen dira. Erabilerari dagokionez, malgutasun handiagoa lortu nahi da eta garagardotegiaren berehalako etorkizunean programa eta aktore berriak sartzeko aukera.



* Planoan mugarritutako eremuaren azalera osoa **204.767 m2**-koa da.

AURKIBIDEA

2	SARRERA
6	HIRI-INGURUNEA ETA NORTASUNA
14	PARTE-HARTZEA ETA DISEINUA
48	ARAUDIA
50	DISEINATZEKO IRIZPIDEAK
58	KUDEAKETA ETA PROZESUA
60	BALIOESPEN EKONOMIKOA
	ERANSKINA:
	DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

HIRI-INGURUNEA ETA NORTASUNA

KOKAPENA ETA TESTUINGURUA

Garagardotegia Fadurako kiroldegiaren eta Algortako hiri-ehunaren artean aurkitzen da, hots, hortik gertuen dagoen alderdian. Algorta Getxo osatzen duten bost auzoren arteko bat da, Andra Mari, Neguri, Romo eta Areetarekin batera.

Garagardotegia eta Fadurako kiroldegia kokapen estrategikoan aurkitzen dira, hiriaren eta autobien beste aldean hedatzen den ingurune naturalaren artean. Garagardotegia kiroldegiaren eta hiriaren arteko harreman horren erdigunean kokatzen da.

Komunikazioa eta garraioa

Garagardotegia garraio publikoaren sare ezberdinekin konektatuta dago. Algortako eta Aiboako metro-geltokien artean aurkitzen da, oinez 13 eta 10 minutura, hurrenez hurren. Fadurako sarrera nagusian Bizkaibussen geltokia dago, eta hortik bost autobus-linea igarotzen dira. Errepidez ere erraz sartzen da BI-637 autobiatik, Makaleta etorbiderako saihezbidea hartuta.

Datozen jarduerak eta garapenak

Garagardotegia Fadurako ekipamendu publikoaren zatia da. Hegoaldean, Bolueko hezeguneko lursail urbanizaezinak ditu eta iparraldean eta mendebaldean hiri-eremu finkatuek inguratzen dute, “eraikuntza irekiaren dentsitate ertain-altuko” kategoriarekin. Inguruneak batik bat bizitegi-izaera du, eta zenbait ekipamendu ere badaude.

Garagardotegiaren ingurunean laster egingo den beste aldaketa bat Makaleta Etorbidekoa izango da; izan ere, foru bide izatetik udal-izae-rakoa izatera igaroko da. Aldaketa horrekin batera, udalerriak kalearen sekzioa aldatu nahi du, izaera hiritarragoa eta oinezkoarekiko adiskidetsuagoa izatearren.

Kokapen estrategikoa dela-eta, hiria Fadurako barrutiarekin konektatzeko puntu nagusi bezala, garagardotegi berrian egingo den esku-hartzea oinarritzko proiektua izango da Fadurako gunearen etorkizunerako.



Garagardotegiaren ikuspegia Makaleta Etorbidetik.



EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Garagardotegiak **2.480 m²-ko** lursail hesitua du. Fadurako parkeari dagokion partzelan kokatzen da, eta partzelak **204.767 m²** ditu.

Makaleta Etorbidean bi sarrera ditu, partzelaren aurreko eta atzeko lorategietan.

1. NABE ESTALIA

240 m²-ko eraikuntza itxia. Egurrezko egitura eta itxiturak. Arkupe-sistema egurrezko zertxeekin eta bi isurkiko estalkia. Batez ere bilera sozialak eta gastronomikoak egiteko erabiltzen da. Aurri-egoeran aurkitzen da 2016an gertatutako sutea medio.

2. KANPOKO ESTALKIA

202 m²-ko eraikuntza irekia. Egurrezko egitura, arkupe-sistema egurrezko zertxeekin eta bi isurkiko estalkia. Batik bat kanpoko jangela bezala erabiltzen da. Egoera onean dago.

3. SUKALDEA ETA OFFICE

102 m²-ko eraikuntza. Adreiluzko hormak eta bi isurkiko estalkia, fibrozementuzkoa. Nabeari erantsia eta harekin komunikatua. Egoera txarrean aurkitzen da.

4. BILTEGIAK ETA BAINUGELAK

61 m²-ko eraikuntza. Adreiluzko fabrikako hormak eta bi isurkiko estalkia, fibrozementuzkoa. Egoera txarrean aurkitzen da.

5. HEGOALDEKO LORATEGIA

825 m²-ko lorategia, hesitua eta altzifre, erramu, binorri eta intsusa heskaiekin inguratua. Erdigune irekia soropilarekin eta itzala egiteko tamaina handiko bananondoa.

6. KLUB ETXEA

390 m²-ko eraikuntza. Erdisotoa, behe solairua eta lehen solairua. Karga-hormak, harrizko harlangaitz-hormak eta bi eta lau isurkiko zera-mikazko estalkia. 1946ko obra, Miguel Beascoa udal-arkitektoak egin. Erabiltzeko egoera onean dago. Getxoko Kirol Klubak erabiltzen du.

7. HARMAILAK

Tribunaren bi albotan dauden "palko-pabiloi" zaharrak. Gaur egun, ormigoizko eta estalki metalikoko harmailak dira.

8. FUTBOL-ZELAIA

Belar naturaleko futbol-zelaia, Getxoko Kirol Klubak erabiltzen duena. 12.000 m² ditu: 7.000 m²-ko jokalekua eta 5.000 m² aldagela, harmaila eta biltegiei dagokienez.

9. GURUTZE GORRIAREN ETXEA

88 m²-ko eraikuntza, bloke eta adreiluzkoa, estalki lauarekin. Aspaldi Gurutze Gorriak erabiltzen zuen. Egun, ez da erabiltzen eta aurri-egoeran aurkitzen da. Ibaiaren alderdi horretako kirol-pistak hornitzen dituen koadro elektrikoa du; eraitsiko balitz, birkokatu beharko litzateke.



1
3
5

2
4
6



NORTASUNA ETA MEMORIA

Fadura polo-zelaia zen 50eko hamarkadan eta, egun, kiroldegia. Faduraren iragana edertasun handiko paraje naturalarekin lotzen da. Makal, sahatx eta haltzez betetako ibarra da, Gobela ibaiak zeharkatzen du Larrañazubiko errekarerekin bildu arte, eta hor, egun, Bolueko hezegunea sortze da, espezie migratzaile ugariren habitata. Parkea nahiz garagardotegia aldatu behar badira, ezinbestekoa da duen balio naturala azpimarratzea.

Gaur egun, oraindik ere, “garagardotegi zaharra” bezala ezagutzen da, gunek hasieran izan zuen erabilerarengatik: koadrilak eta familiak oilasko errearen eta garagardoaren inguruan biltzeko bizkaitar ohitura. Erabilera hori aldatu zen arren, lekuak bere izaera sozialari eustea lortu du.

Duela gutxi, garagardotegia saio edo ekitaldi garrantzitsuenak ospatzeko, kirol-klubek (fut-

bola, errugbia, urpekaritza, arrantza, e.a.) topagune bezala erabiltzen zuten; hau da, partiden ondorengo “hirugarren denborak”, denboraldi-amaierako ospakizunak, Gabonak, bazkideen bilerak, ikastaroak, irteeren plangintzak, e.a.

Modu berean, presentzia esanguratsua zuten garagardotegiaren programa berri duen elkarte sozial eta kulturalak. Musika-jaialdiak bezalako berrikuntzak sartu zituzten, eta, oro har, askotariko topaketa sozialak eta garrantzitsuak biztanleriaren beste sektore batzuentzat.

“Gunea asko erabiltzen zuen elkar-te-ehunak, eta zerbitzu ederra eskaintzen zuen lehiaketak jokatzeko bisitan etortzen ziren klubekin lagun egiteko ekitaldietan”

Álvaro González, Kiroletako zinegotzia.





ERABILERA ETA KUDEAKETA

Garagardotegiaren erabilera-dinamika Fadurako kiroldegikoaren desberdina da. Kiroldegira joaten direnen datuak kontuan hartuta, astelehenetik ostiralera presentzia etengabea da, baina asteburuan nabarmen jaisten da.

Aldiz, garagardotegiaren erreserba-datuak erreparatzen badiegu, grafikoan ikus daitekeen moduan, jenderik gehiena larunbatetan eta igandeetan biltzen da, eta asteko gainerako egunetan okupazio-portzentajea askoz ere baxuagoa da. 2015eko eta 2016ko datuen arabera, asteburuko okupazioa (erreserbak kontuan hartuta) denboraren %85 eta %89 artekoa da. Asteazkenetik, portzentaje hori %45ekoa da. Egunei dagokienez, asteartetan eta ostegunetan, okupazioa %95ekoa izan da 2016. urtean.

Garagardotegiaren erabileraren kudeaketaren ardura Getxo Kirolak-ek du, gaur egun. Espazioa bi asteko aurrerapenarekin erreserbatu behar da, eta erabiltzaileak konpromisoa hartzen du jarduera egin eta gero gunea aurretik zegoen bezalaxe uzteko.

JARDUERA GARAGARDOEGIAN

Garagardotegia era askotara erabiltzen da. Klub batzuek egunero erabiltzen dute eta beste ba-

tzuek noizean behin jarduera zehatzak egiteko.

Eguneroko erabilera (biltegiatzeko gunea eta guzti): Divertek, Getxo Ipar Arrantza, Getxo Dive

Ohiko erabilera: Adrebol, Getxo Futbola Elkar-tea, Getxo Kirol Kluba, Getxo Rugby Taldea.

Noizbehinkako erabilera: Arrautzaldeon Futbol Taldea, Bizkerre Futbol Taldea, Galea Kirol Kluba, Iturgitxi Futbol Kluba, Neguri Kirol Elkar-tea, Andra Mari Ikastetxea, Getxo Arkua, Romo Eskubaloia Kluba, Getxo Saskibaloia, Getxo Xake Kluba, Getxo Euskal Pilota Taldea, Getxoko Aixerrota Boleibol Kirol Taldea, Getxo Show, Izarrak Boxing Kluba, San Nikolas Ikastola, Getxo Triathloi Taldea, Getxo Herri Kirol Taldea, Fadura Tennis Kluba, Getxo Jockey Stick Kluba, Fadura Igeriketa Kluba - Getxo Igeriketa Bolue Elkartea, Sociedad Itxas Argia Mendi Taldea, Itxartu Mendigoizale Taldea, Sikap (filipinarren elkartea), Boliviako kultur elkartea.


Beste erakunde interesatuak: Bizilagunak, Getxo Udala, Zubileta IGE, Getxoko Ipar Arrantza, Stereosonic, Bigeko Institutua, Kantxa Kirol Moda, GIW, Zentzuz IGE, Fadura Eskolako jate-txea, Getxoko Hondartzak Tenisko Kirol Kluba, Stereosonic, Getxo Judo Elkartea, Hockey Kluba, Errugbi Kluba, Patinaje Artistikoaren Kluba.

Garagardotegiaren erreserbak, guztira, 2015ean eta 2016an.

■ 2015

■ 2016

Erreserbak ez du erabilera esan nahi.





PARTE-HARTZEA ETA DISEINUA

GARAGARDOTEGI BERRIRAKO DISEINU KOLEKTIBOA

thinking **Fadura** prozesuaren lehen ageriko emaitza garagardotegirako honako aurreproiektu hau da. Garapenean bi prozesu osagarri egin ziren aldi berean:

Parte-hartzea + Diseinua

Emaitza baterako diseinua da; hau da, herritarren parte-hartzea eta diseinu tekniko batera egin ziren, eta proiektuaren funtsezko alderdiak elkarrekin konpondu zituzten.

Parte-hartzeko jardueri dagokienez, hiru tailer presentzial egin ziren azken urteetan gunea erabili duten pertsona, klub eta elkarteekin, premiak ezagutu eta lekuaren etorkizuneko aukerak identifikatzearren.

Martxo eta ekaina artean, hiru tailerrak burutu ziren Fadura kiroldegiko lehengo Txikigune gelan; gela hori prozesuaren egoitza izan zen.

1. tailerrean, iraganari, garagardotegi zaharren nortasunari eta hiri-testuinguruari buruzko hausnarketa kolektiboa egin zen.

2. tailerrean, erabilera-aukera berriak aurkeztu ziren, garagardotegi zaharren instalazioetan lehendik egiten zirenekin bateragarriak, eta garagardotegi berrirako egon daitezkeen irtenbide arkitektonikoak.

3. tailerrean, berriz, hasierako diseinu-emaitzak egiaztatu ahal izan ziren tailerrean parte hartzen duten eta etorkizuneko erabiltzaileak izango diren pertsonekin.





T1

1. TAILERRA GARAGARDOTEGIAREN NORTASUNA ETA IRAGANA

Data eta lekua

2017/03/29

Txikigune gela, Fadurako kiroldegia

Parte-hartzaileak

Azken urteetan garagardotegia erabili duten klub eta elkarteetako ordezkariak.

Helburuak

Garagardotegiaren iraganari eta hiriarekin duen erlazioari buruzko hausnarketa egitea, leku horren gainean zegoen irudia berreskuratu eta esanahi hori etorkizuneko diseinuan sartzeko.

Aurreproiektuan kontuan izan beharreko arazoak eta alderdi positiboak identifikatzea.

Lekua hiriko ingurune hiritarrarekin eta sozialarekin lotzea.

Dinamika

Zenbait parte-hartzailek bidalitako aspaldiko eta oraingo argazkiak erabili, 4 ariketak egin ziren, aurreko urteetako bizipenak berreskuratzearen.

1. OROITZAPENEN HORMA-IRUDIA

Bost lan-talde antolatu ziren, eta panelak egin zituzten. Ondoren, horiek konbinatuta, horma-irudi handi bat osatu zuten.

Paneletan, garagardotegiaren argazki zaharrak eta berriak jarri zituzten, horien gainean 3 kategoria hauek jasotzeko post-it oharrak ipintzearekin batera.

- Garagardotegiaren inguruko OROITZAPENAK
- KUALITATE positiboak edo negatiboak
- Egiten ziren JARDUERAK

2. NOIZ ERABILTZEN ZEN GARAGARDOTEGIA?

Egutegi bat hartuta, garagardotegiaren erabilerari buruzko informazioa bildu zen; hau da, asteko egunak eta urteko hilabeteak kontuan hartu ziren.

3. NOLA ERABILTZEN ZEN GARAGARDOTEGIA?

Partzelaren aireko argazki batekin, espazio bakoitza nola erabiltzen zen aztertu zen: funtzio nagusiak eta gehien eta gutxien erabiltzen ziren gunek.

4. GETXOKO BESTE LEKU BATZUK IDENTIFIKATZEN

Azkenik, Getxoko aireko argazki handi bat hartuta, hausnarketa egin zuten denek artean; alegia, aisia bezala zein beste leku asko erabili ohi ziren eta garagardotegiarekin zerikusia izan zezaketen edo han osatu zitezkeen bestelako jarduerak non egiten ziren.

Ariketa honen helburua zen garagardotegiaren kontzeptua aztertzea balio anitzeko gune eta gainerako hiriarekiko eta Faduraz eta kirolaz haratagoko beste eremuekiko osagarri bezala.



1. Tailerra:
Garagardotegiaren
nortasuna eta iragana.
Txikigune gela.



Oroitzapenen
horma-irudia lantzen.



thinking Fadura



Leku horretako bizipenetara eta esanahiara gerturatzea. Parte-hartzaileek garagardotegian pentsatzean etorritako hitzak idatzi zituzten.




Garagardotegiaren inguruko kalitate positiboak eta negatiboak jasotzeko ariketa.



1.3. JARDUERAK

Garagardotegian egiten ziren jarduera guztiak bildu zituzten, erabiltzaileen arabera.




T1


2. NOIZ ERABILTZEN ZEN GARAGARDOTEGIA?

- Nagusiak
- Urpekaritza Kluba
- Stereosonic
- Arrautzaldeon
- Bestelako elkarteak

Astea



Urtea



Nagusiak

01-Bazkaria
02-Jolasak

Urpekaritza Kluba

01-Jangela itxia
02-Eszenatokiaren tarima
03-Paella-ontzien biltegia
04-Urpekaritzako biltegia
05-Kolunpioaren sokak
06-Haurrak

Stereosonic


Arrautzaldeon

01-Futboleko aldagelak
02-Harmailak
03-Aire libreko eszenatokia
04-Erabilera bikoitzeko harmailak bi aldeetara
05-Konexioaren irekiera

Bestelako elkarteak

01-Bazkaria
02-Munduko bazkariak
03-Dantzaldia
04-Sukaldea
05-Ipuinkontaketa
06-Kanpoko sukaldea
07-Argazkia

3. NOLA ERABILTZEN ZIREN GARAGARDOTEGIKO GUNEAK?



4. BESTE LEKU BATZUK IDENTIFIKATZEN

Getxon burutzen diren jardueren gaineko hausnarketa egin zen. Horretarako, udalerriaren aireko argazkiaren gainean, bat-batean eta banaka adierazi zituzten garagardotegiarekin zerikusia izan dezaketen aisiaren inguruko aukera ugari, paperean hiri-ingurunea ere kontuan hartzearekin batera.

“Zeintzuk dira garagardotegiaren inguruan dauden ekipamenduak eta aisiarako zonak eta zer falta zaio?”

Ariketa honen bitartez ikus ahal izan genuen garagardotegia espazioen eta jardueren “hiri-sareko” beste nodo bat izan daitekeela.

Parte-hartzaileek koloretako eranskailuak jarri zituzten mapan jardueren kategorien arabera (gastronomia, kirola, aisia...).



Garagardotegiaren testuingurua bateratzea.

T1

ONDORIOAK

Ezaugarrien bistaratzea

Dinamika azkarrei esker, parte-hartzaileek gai izan ziren garagardotegiarekin loturiko ideiak partekatzeke.

Dinamika horien bitartez, zaindu nahi ziren oroitzapenak eta kalitate positiboak sortu ziren: topagunea, ospakizuna, jolasa, otordua, aisia, bilerak, jaialdiak, zabaltasuna, disponibiltatea, e.a. Baina arazo nagusiak mahai gainean jartzeko ere balio izan zuen: utzikeria, zikinzeria, hotza, iluntasuna, ekipamendu gutxi, e.a.

Halaber, gune horretan egin ohi ziren jardura ohikoenak jaso zituzten.

Garagardotegiaren erabilera

Garagardotegia erabilitako pertsonen hautema-teekin, azken bi urteetako erreserbatan oinarrituta eta garagardotegiaren erabilerari buruzko datu objektiboak eta zenbatgarriak alderatuta, erabilera gehieneko uneak identifikatu ahal izan zituzten.

Emaitzaren arabera, asteko eta urteko tarte batzuetan garagardotegia ia ez da erabiltzen; ondorioz, kudeaketa hobetu daiteke, erreserbak

modu eraginkorragoan banatze aldera. Gainera, erabilerarik gabeko denbora-tarte horiek okupatu ahal izateko beste jardura osagarri batzuk pentsa daitezke.

Zona ezberdinen (jangela estalia, biltegiak, eraikien arteko zona, kanpoko estalkia, aurreko lorategia, atzeko lorategia, e.a.) analisi funtzionalari esker, gutxi, erabilitako edo gaizki banatutako espazioak eta horiek hobetzeko aukerak detektatu ahal izan genituen.


Aukera berriak

Ariketaren bitartez, orain arte egin diren jarduerak identifikatu ziren. Alderdi hori eztabai-darako abiapuntu ona izan zen.

Jardura ohikoenez (hirugarren denbora, otorduak, denboraldi-amaierako jaiak, e.a.) gain, azken urteetan egindako beste ekitaldi batzuen inguruko eztabaida egin ahal izan zen (musika-jaialdiak, arkitektura-tailerrak, jai kulturalak, e.a.).

Emaitza 5 kategoriatan sailkatu zen, eta, era horretan, lehendik zaudenak osatzeko erabilera berriak bilatu ahal izan ziren hurrengo tailerrean.





T2

2. TAILERRA AUKERA BERRIAK

Data eta lekua

2017/04/25
Txikigune gela, Fadurako kiroldegia

Parte-hartzaileak

Azken urteetan garagardotegia erabilitako klubetako eta elkarteetako ordezkariak. Tailerrean ordezkariak erabilerak erantsi nahi zituzten pertsonak ere parte hartu zuten.

Helburuak

Garagardotegiaren programa zabaltzea eta aberastea jarduera berriekin eta orain arte egindakoen osagarriak direnekin. Aukera ugari jasoko zituen diseinu malgua lortu nahi zen, erabilera anitzeko instalazioekin eta erabileren etorkizuneko eskarira egokitzeko gai direnekin.

Dinamika

3 ariketa egin ziren, denen artean hausnarketa egin eta garagardotegiaren etorkizuneko diseinua definitzeko.

1. GARAGARDOEGIAREN ERABILERA BERRIAK

Joandako pertsonak jarduera berriak edo lehen-goien osagarriak proposatu zituzten, 5 kategoriako "gurpilaren" gainean:

- Topaketa soziala eta kirol-arloko topaketa
- Aisia eta Kultura
- Turismoa eta Ekintzailtza
- Hezkuntza eta Prestakuntza
- Gastronomia

2. PREMIAK IDENTIFIKATZEN

Banako lana. Pertsona bakoitzak zerrenda bat egin zuen ohiko jarduerak egiteko lehentasunetaz jotako premiekin (espazio-mota, ekipamenduak, altzariak, instalazioak, e.a.).

Premia horiek honela sailkatu ziren:

- Zerbitzu orokorrak
- Oinarrizko zerbitzuak
- Erabilera espezifikoak

3. AUKERA ARKITEKTONIKOAK

Talde-lana. Erreferentziazko espazio errealean argazki ugari banatu ziren, material ezberdinak, koloreak, espazioen kalitateak, e.a. adierazten zituzten xehetasun arkitektonikoekin.

Talde bakoitzak garagardotegiaren "robot erretratua" egin zuen, ikusitako irtenbide arkitektoniko egokienak eztabaidatu eta hautatuaz eta, haien irizpideen arabera, desagokienak baztertuaz.



Aukera
Arkitektonikoak. Arki-
tekturako erreferentzia
errealekin egindako
ariketa.



Aukera berrien
gaineko hausnarketa.






T2

1. GARAGARDOTEGIAREN ERABILERA BERRIAK

1. tailerrarekin jarraitzeko, “jardueren gurpila” osatu zen, ordura bitarte egiten ziren erabileren beste erabilera osagarri batzuekin.

Bost kategoriatan antolatuta, egungo erabileraz haratagoko aukerak ikus ahal izan ziren, batez ere kirol-kluben ekitaldiekin lotuta.

Ariketaren bidez agerian geratu zen egungo erabilerak aberats daitezkeela prestakuntzarekin, kulturarekin edo gastronomiarekin lotutako era guztietako jarduerak eginda, edota udalerriko garapen ekonomikorako estrategiak ere indartu daitezkeela.





Garagardotegirako erabilera berriak.




Antola daitezkeen jarduera berrien inguruko hausnarketa.

T2

2. PREMIAK IDENTIFIKATZEN

Garagardotegian izan beharreko lehentasunezko premia teknikoak deskribatzen dituen banako zerrenda ondorengo diagraman berriaz ordenatu zen; diagrama horretan, portzentaajeetan agertzen dira gehien aipaturiko gaiak.



SERVICIOS GENERALES

● GESTIÓN Y SEGURIDAD

- Horarios flexibles de entrada, personalizado.
- Cámaras de seguridad.
- Señalización adecuada distintos clubes.
- Seguridad.
- Nomenclatura de espacios que reconozcan diversidad cultural (idiomas, personajes históricos, países).

● CARGA Y DESCARGA

- Zona de Carga
- Placas de carga y descarga que habiliten la entrada de vehículos. Zona de remolque de carga.
- Parking carga y descarga equipos de pesca.
- Plazas de aparcamiento carga y descarga.

● ACCESIBILIDAD

- Materiales adaptados.
- Accesos cómodos.
- Accesos acondicionados.
- Aparcabicis.

● ILUMINACIÓN Y ELECTRICIDAD

- Cuadro Eléctrico
- Conexión eléctrica trifásica para compresor (carga de botellas)
- Iluminación interior y exterior
- Enchufes e iluminación adecuada
- Buena electricidad
- Energía en diferentes puntos

SERVICIOS BÁSICOS

MOBILIARIO

- • Zona de almacenaje de mesas y sillas
- Mesas y sillas
- Carros para transportar material pesado
- Máquinas de vending
- Equipamientos móviles fáciles de mover

WIFI

- • Conexión Wifi

COCINA

- • Espacio de limpieza y zona fija de cocina, mostradores sin fuegos fijos
- Diferentes puntos para cocinar
- Complemento a eventos, recursos hosteleros (barra)
- Zona de parrillas y mesas auxiliares de cocina
- Cocina

ASEOS

- • Aseos
- Baños públicos femenino y masculino con cambiadores

ALMACENAJE

- • Mantener el espacio de almacenaje para mantener las actividades.
- Espacio cerrado tipo almacén para guardar material deportivo
- Zona de carga de botellas adaptada a normativa
- Paredes colindantes al compresor y al almacén de botellas reforzadas con hormigón, adaptadas a la normativa.
- Acceso a toma de aire exterior
- Zona de almacenamiento de equipos de buceo ligero, colgadores, con toma de agua dulce para desalado, tanto interior como en zona de exterior, piletas de agua dulce.
- Cámara frigorífica.
- Renovar el almacén actual: Tomas de corriente, mobiliario estructural
- Pozos de limpieza de equipos de pesca
- Estación de carga de aire homologada
- Almacén equipación adaptada a la actividad
- Zona de lavado y endulzado de material
- Secadero de material
- Pileta para pequeñas pruebas
- Cámara frigorífica uso compartido

USOS ESPECÍFICOS

● ESPACIO CUBIERTO

- Zona Cubierta.
- Espacios agradables para estar con móviles, tablets, leyendo, hablando (sofás, butacas, etc).
- Cubiertas móviles.

● ESPACIO EXTERIOR

- Zona Ajardinada, pero que se pueda pisar
- Equipamiento de un Skate-park
- Grifos o fuentes en zona exterior
- Parrilla para comidas solidarias
- Espacio para juegos en hierba (rana, tuca, etc.)
- Espacio de autoconsumo ecológico y sostenible

● ESPACIO POLIVALENTE

- Posibilidad de parcelar con elementos móviles
- Salas polivalentes (oficinas, salas de reuniones, talleres para actividades)
- Espacio polivalente para diferentes asociaciones
- Espacio diáfano
- Espacio grande
- Sobre todo espacios reconvertibles
- No poner muchos obstáculos (adornos...etc)
- Espacios diáfanos y flexibles
- Espacio insonorizado (al menos uno de los edificios, si hay varios)
- Suelo que facilite el uso polivalente

● OCIO Y CULTURA

- Discoteca para adolescentes
- Estructura para exposiciones de gran formato, displays que permitan instalar exposiciones con solo imprimir un tipo de plotteado e instalarlo
- Mesas de Ping-pong, billar, fútbolín
- Estructuras para instalar exposiciones
- Discoteca para adolescentes
- Libros, biblioteca
- Discos, aparato de música

● ESCENARIO-GRADAS

- Escenario
- Gradas Anfiteatro, exterior
- Escenario exterior polivalente (a baja altura) con cubierta y tomas eléctricas, audio y mesa de mezclas
- Escenarios exterior e interior polivalentes

● AUDIOVISUAL

- Pantalla grande
- Pantalla grande (Para apoyar a las personas con discapacidad en las actividades deportivas gracias a programas que permitan la práctica virtual, tipo kinect)
- Materiales propios de una sala de proyecciones de pequeño formato.
- Proyecciones
- Aula de buceo-Proyección.
- Aula de Proyección
- Recursos audiovisuales, pantallas de gran formato y audio, para interior y exterior
- Televisión para ver el fútbol
- Recursos audiovisuales aptos para exterior e interior
- Mesa de mezclas, para pinchar DJ
- Pantallas de proyección, TV y Cine

● JUVENIL

- Zona Guardería
- Placa de agua con chorros para el verano, juego infantil
- Zona de apoyo escolar

● TRABAJO-FORMACIÓN

- Espacio de Trabajo para Iniciativas Juveniles
- Espacio de reuniones, formación
- Espacio cerrado tipo aula con soporte audiovisual, para 50 personas
- Espacios cerrados e insonorizados para usar como locales de ensayo
- Aula de formación de buceo
- Aula de Reuniones/Formación
- Aula para la realización de cursos y charlas
- Espacio dedicado a educar, fomentar, concienciar y practicar el cuidado del medio ambiente
- Espacio para promocionar y enseñar a todos los posibles usuarios que es la alimentación saludable y su consumo

T2

3. AUKERA ARKITEKTONIKOAK

Arkitekturako erreferentzia errealeen argazki ugari banatu ziren, eta parte-hartzaileei garagardotegiaren “robot erretratua” egitea proposatu zitzaien.

Modu horretan, espazioen forma, bolumena, materialak eta kalitatea irudikatu eta imajinatu ahal izan zituzten. Ariketa honen bitartez, zenbait ideia baztertu eta irtenbide gustukoenak kontuan hartu ahal izan zituzten.

GAI GUSTUKOENAK


- Altura bikoitza
- Kanpoko espazioa estalia
- Argi naturala
- Sabai-leihoak
- Zoru gogorak
- Funtzio anitzeko ekipamendu mugikorra
- Banako mahaia
- Fatxadako irekitzeak
- Luminariak

IDEIA BERRIAK

- Kanpoko eta barruko anfiteatroa
- Harmaila, mini-auditorioa
- Altzariak jasotzeko lekua
- Klubak eta jarduerak bereizteko elementuak
- Biltegi itxiak
- Argi-hargune ugari

SAIHESTU BEHARRE-KO ALDERDIAK

- Diseinu modularrak
- Suntsitzeko eta lapurtzeko errazak diren elementuak
- Altzari hauskorak
- Eragozten duten elementu dekoratiboak
- Zahartzaro txarreko, iraunkortasun gutxiko materialak





T2

ONDORIOAK

Erabilera berriak

Erabilera berriak bilatzearekin garagardotegiaren hiri-mailako inpaktua eta potentziala areagotzen dira, kirol-eremuko jarduerak nabarmen gehitu ditzaketen jarduera berrien katalogo zabala sortzearekin batera. Orain arteko erabileren jarraipena bermatuz gero, garagardotegia erreferentziazko ekipamendua izan daiteke Getxoko udalerrirako.

Premiak antzematea

Aurreikusitako erabilerak bete ahal izateko oinarrizko baldintza teknikoak aztertu eta lehentzi ziren. Hori funtsezko lehen urratsa izan zen



premia horiei guztiei erantzuteko eskema bat osatzearen.

Irtenbideak baloratzea

Eraikuntza-irtenbide egokienak kontuan hartu eta hautatu ziren, leku horretarako hain aproposak ez direnak baztertuaz.

Lehen emaitzak: espazio-motak

Erreferentzia arkitektonikoak eta premien zerrenda aintzat hartuta, espazio-mota jakin batzuk sortuko zituzten lehen diseinu-irizpideak ezarri ziren.



Bolumenen eskema


Lehenik eta behin, lehendik zegoen diseinua ordenatu eta hobetu zen. Gaur egun, garagar-dotegiak hiru leku ditu: barruko espazio estalia, kanpoko espazio estalia eta lorategia (azken horren erdia oso gutxi erabiltzen da).

Proposamenean kontzeptu horiek mantentzen diren arren, tarteko lekuak ere sartzen dira: estalitako edo estali gabeko zona malgua, arkupeak, lorategi pribatua eta lorategi publikoa. Ondorengo eskeman espazio ezberdin guztiak agertzen dira, kokatuta eta haien artean eta partzelarekin lotuta.

Luzera-sistema erraz baten arabera banatzen dira, eta hor egiturazko arkupeak jartzen dira.

Kokapen horrek hainbat abantaila eskaintzen ditu:

- **Ardatzean zehar hazteko aukera**, modulu gehiago edo gutxiago erantsita.
- **Espazioak konektatzea** eta bereiztea.
- Kalearen ondoan lorategiaren **espazioa libre uztea** eta eraikuntzako elementuak ordenatzea.



ESPAZIO
IREKIA

ARKUPEA EDO
PORTXEA

KANPOKO
ESTALIA

BARRUKO
ESTALIA

ESTALI
MALGUA

T3

3. TAILERRA

GARAGARDETEGI BERRIA: MALGUTASUNA ETA BERRIKUNTZA

Data eta lekua

2017/06/06

Txikigune gela, Fadurako kiroldegia

Parte-hartzaileak

Azken urteetan garagardotegia erabilitako klubetako eta elkarteetako ordezkariak. Tailerrean ordezeko erabilerak erantsi nahi zituzten pertsonak ere parte hartu zuten.

Helburuak

Pertsona interesatuekin egiaztatzea eta probatzea diseinuko lehen ideiak eta garagardotegiaren aurreproiektuari forma emango liokeen eskema funtzionala. Bolumen, material, banaketa, programa eta erabileren gaineko gutxi gorabeherako lehen kalkuluak irudikatzea eta eztabaidatzea eta aurreko eskeman beharrezko hobekuntzak sartzea.

Dinamika

Bertaratutakoei diseinuaren lehen zirriborroa aurkeztu zitzaion. Bereziki azpimarratu zen aurreko tailerretan egindako lanak eragin handia izan zuela diseinuaren gaineko erabakiak hartzerakoan. Aurkezpena egiteko, maketa bat, irudiak eta planoak erabili ziren. Ariketa bakarra egin zen taldeka; horretarako, 4 lan-talde osatu ziren.

1. GARAGARDETEGI BERRIA IRUDIKATZEA

Helburua zen xehetasunez irudikatzea nola erabiliko zen espazioa proposatutako jarduera baterako; era horretan, narratiba bat osatu zen urratsez urrats, egun batean garagardotegian jarduerak hasten direnetik amaierara bitarte.

Talde bakoitzari ondorengoa banatu zitzaion:

- Inprimatutako panela, proposaturiko diseinuaren oinplanoko eskema funtzionala, partzela eta parkerako

sarrerarekin.

- “Kit” ebakigarria, hainbat neurriko modulu, altzari, ibilgailu, eta abarrekin.
- Egund batean zehar banatu beharreko erabilera edo jarduera mota bat, proposaturiko diseinuaren funtzionamendua frogatzeko. Talde bakoitzak jarduera ezberdin bat egin behar zuen, diseinua lau erabilera-egoera oso ezberdinetan ikustearren:

Jarduera dinamikoa: jarduera fisikoa, kirola, gimnasia, dantza.

Jarduera estatikoa: tailerrak, prestakuntzak, klaseak, xakea.

Jarduera eszenikoa: antzezpenak, zinema, kontzertua, ipuin-kontaketa, korua, jaialdia.

Topaketa soziala: jaia, hirugarren denbora, denboraldi-amaierako afaria, sarien banaketa.

Talde bakoitzak emandako jarduera espazioaren arabera antolatu zuen, eta, simulatutako egun horretan zehar, altzariak eta moduluak kokatu zituen, espazioak ahalik eta ondoen banatuta, zatituta edo konektatuta. Halaber, guneak eta horiek izan ditzaketen aukerak aztertzean aurkitutako arazoak eta iradokizunak jasotzeko etiketak idatzi eta erantsi zituzten.

Bigarren txanda batean, simulazioari “kontrastea” gehitu zioten, aurreko jarduerarekin bateratzeko, biak elkarrekin izateko beharrezko aldaketak eginaz.



Garagardotegi berria irudikatzen.



Taldeetan banatuta lantzea espazioaren eta banaketaren gaineko aukerak, erabilera ezberdinen arabera.





T3

GARAGARDETEGI BERRIA IRUDIKATZEA IRADOKIZUNAK

OROKORRA

- Kudeaketaren arduraduna
- Garbitasunerako fidantza
- Klub Etxea aldagela historiko gisa
- Garbitasuna eta ordena

SARRERAK

- Sarrera-kontrola sarrera nagusian
- Bigarren sarrera leku gehiagorekin
- Egungo irteera arriskutsua (bainugelen ondoan)
- Hainbat sarrera independente
- Erakusketa irekiak sarreran
- Kea eta zaratak sukaldean

ZERBITZUEN ZONA

- Zamalanetarako sarrera
- Ekipamendua lehortzeko lekua
- Garagardotegiaren mantentze-lanetarako lekua
- Urpekaritza 2 modulu
-

BARRUKO ESPAZIO ESTALIA

- Dibisio mugikor akustikoak bilerak egiteko leku itxiak sortzeko
- Partekaturiko espazioa
- Harmailak dituen zona, azpian biltegiekin eta goiko mailara igotzeko balio duena.
- Harmaila bilkorak
- Muntatzeko eskenatoki ziurtatua
- Hormak erakusketetarako erabiltzea
- Altzarien biltegia

ESTALITAKO ESPAZIO MALGUA

- Leku txikiagoa, itxia eta berogailuarekin
- Erabilera garaikideak
- Parrila

KANPOKO ESPAZIO ESTALIA

- Udako kanpamentu-bilerak

EKIPAMENDUAK


- Elementu mugikor sendoak
- Harraskak
- Bainugelak, dutxak
- Bainugelen malgutasuna

LORATEGI PRIBATUA


- Kanpin-dendak

KONFIGURAZIO-AUKERAK


Jarduera dinamikoak: jarduera fisikoa, kirola, gimnasia, dantza.




Jarduera estatikoak: tailerrak, prestakuntzak, klaseak, xakea.



Jarduera eszenikoak: antzezpenak, zinema, kontzertua, ipuin-kontaketa, korua, jaialdia.



Topaketa soziala: jaia, hirugarren denbora, denboraldi-amaierako afaria, sarien banaketa.






Erabilera ezberdinen araberako espazio eta banaketa aukeren inguruan taldeek egingo dako lanaren zenbait emaitza.







Arazoak eta iradokizunak etiketatzea.



3. Tailerra bateratzea.

TAILERREN EBALUAZIOA



Tailerretara joatearen gaineko grafikoa.

■ C1 tailerrean sartutako pertsonak

■ C2 tailerrean sartutako pertsonak

■ C3 tailerrean sartutako pertsonak

Lehen tailerretik azken tailerrera 28tik soilik 8 izan dira.

Bigarrenetik hirugarrenera, berriz, 12 berritatik soilik 5 izan dira.

Hainbat elkartek beren ordezkaritza izan dute, ordezkaria aldatu arren.


Ebaluazio-metodoa

Erabilitako parte-hartze metodologia ebaluatzeke asmoarekin, hiru tailerretan (aurrerantzean, C1, C2 eta C3) ebaluatzeke mekanismoak sartu ziren, bertaratutako pertsonak beren iritzia partekatu ahal izateko. Saioaren amaieran, norberak eta izenik jarri gabe fitxa bat betetzeko banatu zitzaion pertsona bakoitzari, honako galdera hauekin:

- Jarduera baliagarria eta emankorra iruditu zaizu? 1etik 10era.
- Jarduera jarraitzeko modukoa iruditu zaizu? 1etik 10era.
- Jarduera horren ondoren, zure ikuspuntua kontuan hartzearen inguruan duzun balorazioa areagotu da, bere horretan mantendu da edo gutxitu egin da?
- Jarduera horren ondoren, parte-hartze prozesuak emaitza onak ematearen inguruan duzun konfiantza areagotu da, bere horretan mantendu da edo gutxitu egin da?
- Jarduera horren inguruan, garagardotegiaren prozesuan parte hartzen jarraitzearen inguruan duzun jarrera areagotu da, bere horretan mantendu da edo gutxitu egin da?

Horrez gain, iruzkin askeak egiteko tarte bat gorde zen, era anonimoan jasotze aldera bertaratutakoek dinamiketan zehar adierazi ezin edo nahi izan ezin zituzten proposamenak edo iruzkinak.

Halaber, aurreko tailerretan parte hartu zuten galdetu zitzairen, bilakaeraren jarraipena eta alderaketa egitearren.



Ebaluazioa

Guztira, 48 pertsonak hartu zuten parte, %29 emakumeak eta %10 etorkinak. Asistentzia linealki gutxiagotu zen lehen tailerretik aurrera; hots, 28tik 22ra eta 16ra. Tailer bakoitzean pertsona berriak sartu ziren, eta beste batzuek joateari utzi zioten.

Ebaluazioaren arabera, tailerretan parte hartutakoen asebetetzea altua izan da oro har. Batez beste oso ongi baloratu dituzte tailer bakoitzeko alderdi guztiak, eta ondoen baloratutako tailerra bigarrena izan da; jarraian, berriz, hirugarrena. Balorazio negatiboak oso gutxi izan dira tailer guztietan, ia-ia zehatzak izan dira.

Tailerren **baliagarritasuna eta produktibitatea** bigarren tailerrean hobeak izan ziren, oso ongi altuarekin, eta hirugarrenean apur bat jaitsi zen. 7,1 (C1) - 8,5 (C2) - 8,0 (C3)

Jarduerak jarraitzeko erraztasuna bigarren tailerrean hobetu zen, hirugarrenean jaistearekin batera, eta oso ongi altua izan zuen beti. 8,0 (C1) - 8,8 (C2) - 8,4 (C3)

Entzunak izatearen gaineko pertzepzioa, ikuspuntua kontuan hartzearena, hobetu egin zen bigarren tailerrean, eta hirugarrenean ere maila altuan mantendu zen.

7,3 (C1) - 8,1 (C2) - 8,1 (C3)

Parte-hartze prozesuak emaitza onak ematearen gaineko **konfiantza** areagotu egin zen bigarren tailerrean, eta maila horren inguruan mantendu zen hirugarrenean.

7,2 (C1) - 8,0 (C2) - 7,8 (C3)

Prozesuan parte hartzen jarraitzearen gaineko **jarrera** ere hobetu egin zen bigarren eta hirugarren tailerrean, etengabea izanaz.

7,2 (C1) - 8,1 (C2) - 8,1 (C3)

Ia kasu guztietan, pertzepzio horiek gehitzen edo mantentzen lagundu zuten jarduerak. Kasu bakan batzuetan bakarrik jaitzi zen balorazioa jardueraren ondoren. Jarraian, jarduera bakoitzaren ondoren balorazioa hobetutako parte-hartzaileen kopurua agertzen da:

Ikuspuntua kontuan hartua izatearen gainean bertaraturakoei zuten pertzepzioa gehien hobetu zen tailerra bigarrena, lehenengoa baino proposamenara gehiago bideratua (lehen premiak identifikatzen oinarritu zen) eta azkena (proposatutako diseinua ebaluatzerara gehiago bideratua) izan ziren.

%47 (C1), %86 (C2) eta %50 (C3)

Bigarren tailerrean gehien gehitu zen prozesu parte-hartzaileak emaitza onak ematearen gaineko konfiantza.

%74 (C1) - %82 (C2) - %63 (C3)

Eta berriro ere bigarren tailerrean gehien indartu zen prozesuan parte hartzen jarraitzeko jarrera.

%58 (C1) - %69 (C2) - %56 (C3)

Alderdi guztien gaineko iritzi positiboena C2 eta C3 tailerretan parte hartutako pertsonen izan zuten (soilik C3 tailerrean edota C1ean eta C3an parte hartutakoekin alderatuta). Jorera horrek C2 eta C3 tailerren arteko sinergia erakusten du, lehen erabilera potentzialak eta diseinu-kualitateak eztabaidatzekoa eta bigarrena proposatutako diseinuan erabilera ezberdinen eraginkortasuna frogatzekoa.

C3ko erantzunen arabera, pertsonen parte hartzen jarraitzeko duten jarrera tailerra baliagarritzat eta emankortzat hartzearen, jarraitzeko erraza izatearen eta prozesua arrakastatsua izatearen gaineko konfiantzaren arabera da. C2 tailerrean, azken faktore hori ez da entzunak izatearen gaineko pertzepzioa bezain erabakigarria izan. Aldaketa horrek jarduera bakoitzaren eraginkortasuna erakusten du: C2 tailerrean, erabilera potentzialei buruzkoan, parte-hartzaileentzat erabakigarria zen entzunak izatea; aldiz, C3an, diseinu-proposamenen eta jardueren simulazioaren ingurukoan, erabakigarria prozesuaren emaitza izan zen.

Ebaluazioaren gaineko emaitzek adierazi dute tailer horiek beren helburuak lortu zituztela, eta bilakaera positiboa izan dela planteamendu, dinamika eta emaitzei dagokienean.

Deialdia eta ordutegia

Posta elektronikoaren bidez harremanetan jarritako pertsonen %15-30 artekoa izan zen tailerretan joandako pertsonen kopurua, baina hori gehitu zitekeen banaka telefonoz deituta. 19:00etatik 21:00era bitarteko ordutegia egokia izan zen, nahiz eta adierazi asteburuan disonibiltate handiagoa egon zitekeela. 21:00etatik aurrera, zaila izaten zen pertsonak tailerrean edukitzea. Jardueretan parte hartutako pertsonen jarraitzea prozesuaren emaitzetarako positiboa zela egiaztatu zen.

ARAUDIA

Aurreproiektu honetan jorratu beharreko lehen puntua Fadurako garagardotegian aplikatu daitekeen hirigintza-araudiak ezarritako baldintzatzaileak dira. Arau horiek hainbat erakundek zehaztuak dira, eta horien eskumenak modu ezberdinean eragiten du partzelan eta eraikuntza-elementuetan.

Jarraian agertzen dira garagardotegian eragina duen araudia eta diseinu arkitektonikoari begira kontuan izan beharreko alderdiak.

1. FORU-ERREPIDEA: MAKALETA ETORBIDEA

Egungo erakunde eskumenduna: Bizkaiko Foru Aldundia.

Etorkizuneko erakunde eskumenduna: Getxoko Udala.

Araudia: martxoaren 24ko 2/2011 Foru Araua, Bizkaiko Errepideei buruzkoa.

Nabarmendu beharreko puntuak

1. Eraikuntza-lerroa errepideen bi aldetara aurkitzen da, 12 metrora tokiko sarean, galtzadaren kanpoko ertzetik neurtuta. Galtzadaren kanpoko ertza errepidearen kanpoko erraiaren eskuineko bazterra da, zoazen noranzkoan.
2. Lerro horretatik errepidera bitarte ezin da inolako eraikuntza-oharrik egin sestra gainean eta azpian.
3. Eraikuntza-lerroaren aurretik lehendik dauden eraikuntza eta instalazioetan, soilik konpontzeko lanak egin ahal izango dira, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko babestutako jardueri buruzko araudi

instituzionalean ezarritakoaren arabera, kontserbazio eta egokitasun arrazoiak direla-eta.

4. Era berean, sendotzeko obrak egin ahal izango dira, eraikuntza edo instalazioa dagoen lursaila desjabetzea aurreikusita ez badago, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako jarduera bat burutzeko, eskaera egiten denetik 4 urteko epearen barruan.

Ondorioak

Eraikuntza espaloiaren ondoan kontserbatu liteke, perimetroa errespetatuaz eta barrua berrituaz, “sendotzeko obrak” izanik. Kasu horretan, dagokion baimena eskatu behar zaio Aldundiari, errepidearen titulartasuna aldatu aurretik jarduera gauzatu nahi bada.

Bestalde, HAPNan ez da agertzen eraikuntza hori. Garagardotegiaren proiektua Getxoko HAPNan sartzea eskatzeko aukera izan daiteke.

2. JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOA

Erakunde eskumenduna: Uraren Euskal Agentzia (URA).

Araudia: 849/1986 Errege Dekretua - Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua, Uren inguruko 29/1985 Legearen I, IV, V, VI eta VII aurre tituluak garatzen dituenak.

Garagardotegiak Gobela ibaiaren polizia-zonaren eragin partziala du, eta lursailaren erliebea eta eraikuntzak bezalako alderdiak baldintzatzen ditu. Lehendik dagoen eraikuntza handiagotzeko, URAREN onarpena beharko litzateke.

3. ERAIKITZEKO BALDINTZAK

Erakunde eskumenduna: Getxoko Udala.

Araudia: Getxoko HAPN.

Nabarmendu beharreko puntuak

1. Garagardotegiaren sailkapena ondorengo da: Hiri Lurzorua eta Ekipamendu Publikoa.
2. Garagardotegia Fadurako parkeari dagoen partzelan kokatzen da, eta partzelak **204.767 m2** ditu.
3. Fadurako instalazioetan ezartzen da "13. Ordenantza Jolaseta eremurako":

1. Gutxieneko orubea800 m2
2. Gehieneko okupazioa%30
3. Eraikuntzaren altuera gehienez3 p
4. Mugakide eta bideekiko tartea4 m
5. Eraikuntzen arteko tartea8 m
6. Sabai koefizientea sestra gainean0,25 m2/m2
7. Eremuaren aprobetxamendu-mota0,25 m2/m2

Ondorioak

Eraiki daitezkeen m2-ei dagokienez:


Gehienez eraiki daitezkeen azalera partzelaren m2 bakoitzeko eraikitako 0,25 m2-koa da. Beraz, partzela osoan **51.191 m2** eraiki daitezke.

Dokumentu hau argitaratu den egunean, jakin badakigu Fadurako parkearen partzela osoan **35.700 m2** inguru eraikita daudela.

Garagardotegirako proposatutako azalera eraikia **860 m2**-koa da.

Gainerako alderdiei dagokienean:

Aurreproiektu-mailan, proposamenak gainerako eraikuntza-baldintzak betetzen ditu.



Partzelan aplikatzen daitekeen araudiaren eskema.

DISEINU-IRIZPIDEAK

ERREFERENTZIAZKO ESPAZIOA FADURARAKO ATE IREKIA

Hiri-testuinguruaren gaineko lehen analisisan agerian geratu zen garagardotegiak Fadura eta gainerako udalerriaren arteko harreman-nodo bezala duen kokapen nagusia. Beraz, garrantzitsua da garagardotegia birgaitzean, Fadura Getxoko herritarrentzat erreferentziazko leku bilakatu nahi izateko asmo horiek jasotzea, hirirako ate irekia izatearren.

Hiriaren ikuspegitik, garagardotegiaren aurreproiektuan zenbait alderdi funtsezkoak dira:

- Eraikuntza batzuk integratzea eta hobetzea eta osotasun ikuspeirik gabe agertzen joan diren baliorik gabekoak eraistea, berehalako premia funtzionala betetzetik haratago.








- Lehendik dauden zuhaitz guztiak kontserbatzea eta integratzea.

- Partzelaren espazio publikoaren eta espazio pribatuaren artean muga berria ezartzea, egun erabiltzen ez diren espazioak aprobetxatuz.

- Getxon, erreferentziazko ekipamendu berria eta espazio publikoa sortzeko aukera aprobetxatzea, Faduraren sarreran.

- Makaleta etorbidea udalerriko bide bilakatzea, “kalea sortzen eta hiria sortzen” lagun dezakeena. Eraikina kalera irekitzea, inguruko espazio publikoei bizia emanaz, funtsezkoa izango da Makaleta etorbidearen izaera aldatzeko eta bulebar berria sortzeko.





DISEINUZKO IRIZPIDE ESPAZIALAK

Etorkizunean garagardotegia erabiliko duten zenbait pertsonarekin eta elkarterekin burututako tailer ezberdinei esker, argi eta garbi identifikatu ziren leku, gune, ezaugarri eta erabilera ohikoenak eta preziatuenak nahiz gabezia nagusiak. Hortik aurrera, irizpide nagusia izan zen egungo erabilera guztien garapena hobetzeko eta aldi berean oraindik definitu gabeko etorkizuneko erabilera-egoera berriak sartzeko aukera pentsatzeko gai izango zen diseinua lortzea.

Diseinatzeko estrategia nagusiak:

- Egitura-eskema erraza erabiltzea eta gai izatea erabilera oso ezberdinak hartuko dituzten es-

pazioak sortzeko, proposaturiko arkitekturaren esperimentazio formalak baldintzatu gabe.








- Kanpoaren eta barruaren arteko harreman-egoera ezberdinak sortzea, barruko eta kanpoko espazioak sortuaz, tarteko egoeren katalogo zabalarekin batera.

- Lehendik dauden eta mantenduko diren eraikuntzak integratzea eta horiei balioa ematea, horien bizitza baliagarrian zehar gehitutako eraikuntza-kalitate baxuko elementuak kenduaz.

- Fadurarako sarrera berriaren paisaia naturalean eraikuntza berria integratzea, lehendik dauden zuhaiztien kalitateak aprobetxatuaz eta indartuaz.

- Egitura eta espazio malguak sortzea, multifuntzionalak, ludikoak eta hazteko eta denboran zehar aldatzeko gaitasuna dutenak.





ESPAZIO MALGUAK ETA MULTIFUNTZIONALAK

Parte hartzeko tailerretan nabarmendutako funtsezko alderdietariko bat izan zen garagardotegiak gaitasuna izatea erabilera oso ezberdinak aldi berean modu erosoan gauzatzeko. Hori dela-eta, malgutasuna eta erabilera ezberdinak hartzeko espazioak aldatzeko gaitasuna diseinuaren ezinbesteko ezaugarriak dira.

Beste alderdi garrantzitsu bat da denboran zehar hazteko, aldatzeko eta egokitzeko aukera izatea, erabilera trinkoagoa arazorik gabe hartzeko, eskaera funtzional berriak dituzten pertsona eta erakunde gehiago garagardotegia erabiltzen hasten diren heinean.

Diseinu-proposamenaren espazio-aukeren analisi sistematikoak, espazioen eta egokitzeko aukeren katalogo oso zabala eskaintzen du:

1. Espazio estalia eta klimatizatua. Eraikuntza osoko espazio klimatizatu bakarra da. Behe solairuan, 389 m²-ko espazio modularra du. Barnean, gune nagusi diafanoa, 245 m²-koa, 25 m²-ko 3 konpartimentu-gela, komunak, eskailera eta 11 m²-ko 4 biltegi.

Lehen solairuak 318 m² ditu. 230 m²-ko gune diafanoa, patio nagusiarekin, 25 m²-ko 3 konpartimentu-gela, komunak eta eskailera. Horrez gain, 50 m²-ko kanpoko terraza ere badu.

2. Espazio estali irekia: espazio-egituraren azpian estalitako kanpoko gunea, 2 albotara erabat irekia, 223 m²-koa.

3. Tarteko patioa, aldagarria: kanpoko espazioa, klimatizatu gabea, espazio-egituraren azpian, 3 albotan irekia, 295 m²-koa. Goiko egitura estali daiteke, premien arabera, eta bestelako elementuak har ditzake.

4. Egitura espazial ludikoa eta malgua: egitura espazial metalikoa eta ludikoa, malgua eta norberaren eran jar daitekeena, erabilera ugari egiteko. Barruko lorategiarekin jarraipena du.

5. Arkupeak: 136 m²-ko zona estaliak eraikuntzen perimetroan, euria egiten duenean kanpoaldean egon ahal izateko.

6. Sukaldea, biltegia eta bainugelak: lehendik dagoen eraikuntza, birgaitu eta integratuko dena elikagaiak prestatzeko, biltegietarako eta komunetarako espazioa bezala erabiltzeko.


7. Harrizko Klub etxea: lehendik dagoen eraikuntza enblematikoa, partzela ekialdetik mugatzen duena. Gehitutako teilatuak kendu eta estalkia birgaituko da.

8. Espazio publikoa, Fadurarako ate irekia: garagardotegiaren iparraldean dagoen espazio publikoa, Fadurarako lorategi-sarrerak garagardotegiaren partzela zaharrean erabiltzen ez diren zonekin lotzen dituen. Espazioari jarraipena eman zaio Makaleta etorbideraino, hiriko espazio bakarra osatzearren.


Getxoko Herri Kirol Taldea kirol tradizionalako elkarteak orain arte Gurutze Gorriko etxearen ondoan egiten ditu bere jarduerak, eta orain beste kokapen bat izango du parkearen barruan.

9. Barruko lorategia: garagardotegiaren partzelako hegoaldeko barruko lorategia. Jarraipena izango du espazio-egiturarekin eta estalitako kanpoko espazioekin.


10. Zerbitzua sartzeko bidea: atzeko bidea, 4 m inguruko zabalerakoa, biltegien zonara ibilgailuak sartzeko.



Espazio malguak eta multifuntzionalak



Hezkuntza-tailerra, topaketa gastronomikoa eta ekitaldi kulturalak



Azoka komertziala eta kanpamentu ludikoa

IRAUNKORTASUNAREN ETA ENERGIA- ERAGINKORTASUNAREN INGURUKO ESTRATEGIAK

Garagardotegi berriak hiriko jardunbide egokien erreferentzia izan behar du maila oso ezberdinetan:

Hiri-mailako testuingurua: elkarreragin sozialerako espazio publiko berria sortzea azpimarratzen du, eraikinaren barrualdeko eta kanpoaldeko harremana areagotzeko.

Testuinguru soziala: erkidegoa diseinuan eta funtzionamenduan sartzen du, toki-mailan lotura sozialak sortuaz.

Iraunkortasuna:

- Eguzkiaren argia eta aireztapen naturala aprobetxatzen ditu bizitza-kalitate hobea lortzeko.
- Materialak: hautatutako materialak ingurumen-arloko irizpideen arabera dira, bai ateratzeko, ekoizteko eta garraiatzeko, bai eraikinaren barruan izango duten bizitzarako edota etorkizunean desmuntatzeko.
- Irizpide teknikoak: obran ezartzerakoan, gaika biltzea eta bereiztea errazten duten materialak, bizitza baliagarrian mantentzeko eragiketa gutxiago behar dituztenak.
- Irizpide ekonomikoak: iraunkortasun handiagoko eta mantentzeko kostu baxuagoko materialak, ingurunean aldeko ondorioekin.
- Ingurumen-arloko irizpideak: bizitza-ziklo osoan baliabide ez berriztagarriak modu eraginkorrean kontsumitzen eta hondakin gutxiago sortzen dutela egiaztatu ahal izateko materialak.
- Uraren kontsumoa: garagardotegi berriaren funtzionamenduak eraikinean eta kanpoaldean behar den uraren kontsumoa murriztu behar du, hondakin-urak tratatzeko beharra murriztu eta euri-urak aprobetxatu barruan eta kanpoan behar den ura bezala erabiltzeko.
- Izaera didaktikoa: garagardotegi berriaren

eraikinak bere funtzionamendua erakusten du, eta pertsonentzat gardena eta ulergarria da; gainera, ingurumen-arloko hezkuntza bultzatzen du.

Energia-eraginkortasuna eta iturri berriztagarriak:

Getxoko baldintza klimatologikoak kontuan hartuta diseinatu da, erabiltzen duen energia optimizatze aldera. Konfort-sistema klimatikoa erabiltzen du, hasiera batean diseinu bioklimatiko pasiboaren alderdian oinarrituta, kontsumo energetikoak ahalik eta gehien murriztuaz. Behin kontsumoak murriztuta, energia berriztagarrietan oinarritutako sistema aktiboak erabiltzen dira.


Neguko funtzionamendua:

- A. Eguzki-energia eskuratzea energia hori hartzeko fatxadetan eta estalkietan jarritako sistemen bitartez.
- B. Girotze aktiboaren sistema (beroa), eguzki-panel termikoen bitartez, beroa ekoizteko zoru bero-emailearekin konbinatuta.
- C. Lurperatutako hodian sistema aerogeotermikoa, kanpoko airearen sarreraren aurretratatamendua (aurre-berokuntza) egiteko.
- D. Aire berritzeko sistemaren kontrola CO₂ sentsoreen bitartez, airearen gehiegizko berritzea galaraziaz, kontsumo energetiko irrazionalak egin gabe.


Udako funtzionamendua:

- A. Eguzki-babesa eguzki-energia hartzen duten fatxadetan eta estalkietan, eguzki-irabazi termikoak saihesteko.
- B. Girotze aktiboaren sistema (hotza), eguzki-panel termikoen bitartez, xurgapen (eguzki-hotza) bidezko hozkailuarekin eta hotza ekoizteko zoladuran jarritako panel erradiatzaileekin konbinatuta.
- C. Lurperatutako hodian sistema aerogeotermikoa, kanpoko airearen sarreraren aurretratatamendua (aurre-hoztea) egiteko.
- D. Aire berritzeko sistemaren kontrola CO₂ sentsoreen bitartez, airearen gehiegizko berritzea galaraziaz, kontsumo energetiko irrazionalak egin gabe.

NEGUA




UDA




SISTEMA AKTIBOAK

EGUZKI-PANEL TERMIKOAK ENERJIA ESKURATZEKO GAILUAK




SISTEMA PASIBOAK

UDA:
EGUZKI-ERRADIAZIOA MURRIZTEKO EHUNAK ETA LANDAREAK



NEGUA:
FATXADA HARTZAILEAK

IRABAZI TERMIKOAK ETA ENERGIAREN KONTSUMOA MURRIZTEA



MATERIALEEN GAINEKO MEMORIA

Egitura

1. Zurezko eta altzairuzko egitura mistoa
Zur ijeztuko sostengu-egitura, zertxeekin osatua, zurezko parearekin, muntagekin eta altzairuaren trakzio-elementuekin. Altzairuzko lotura torlojotuak.

2. Egitura metaliko espazial arina
Altzairu galbanizatuko profilen egitura espaziala, lotura torlojotuak eta sareta elektrosoldatu galbanizatuko pasarelak.

3. Egitura-sareak
Bandalismoaren aurkako soka armatuko sareak, altzairu-hari bihurrituen arima, polipropileno estaliak, eta aluminiozko konektoreak.

Itxiturak

4. Zurezko sandwich panela
Estalkia eta kanpoko itxiturak sandwich erako zurezko panel matxinbratuan eta poliestireno hedatuko gunee isolatzailea, beheko aldean taula akustikoaren aukerarekin.

5. Zurezko lamina kanpoko estaldura
Zurezko pieza torlojotuen estaldura, azpiegitura metaliko galbanizatuaren gainean. Babesa kanpoko pinturen bitartez.

6. Errezel-horma
Eguzki-kontrolerako aluminiozko eta beira ijeztuko arotzeria arineko fatxada, beira bikoitz eta aire-ganberarekin.

7. Sabai-leiho mugikor motordunak
Sabai-leihoak estalkian, eguzki-kontrolerako aluminiozko eta beira ijeztuko arotzeriarekin. Goitik kanporako irekiera motorduna.

8. Beira ijeztuko dibisio finkoak
Aluminiozko eta beira ijeztuko arotzeriadun manparak.

9. Beira ijeztuko dibisio tolesgarriak
Sistema banatzaile mugikorra, goiko eta beheko gida-erraeiekin, tarteko bastidorerik gabe eta beira ijeztuko panelak, ertzetan pilatzeko aukera eta guzti.

Zoladurak

10. Mikrozementuzko zoladura etengabea
Bi geruzako estaldura (mikrozementu hautsa eta erretxinak), amaiera irristagaitza.

11. Sareta-zoladura
Kanporako plakak, sareta elektrosoldatu galbanizatuzkoak.

12. Legar-zoladura
Legar-zoladura, plastiko birziklatuko gelaxken plaka egonkortzaileekin.

13. Soropil armatuko lauhen zoladura
Hormigoi indartu modularren in situ sistema, substratuari eta soropilari eusten dioten plastiko birziklatuko moldeekin sortutako barrunbeekin.

1	1	2	3
4	4	5	5
6	7	8	9
10	11	12	13



KUDEAKETA ETA PROZESUA

SARRERA

Proiektuaren helburuetariko bat zen garagardotegiaren instalazio berriak kudeatzeko proposamena garatzea. Garapenean bertan, kudeaketa hori jorratu beharra ikusi zen, eta ez tailer batzuetan modu zehatzean landuta, baizik eta aurreproiektua hastean abian jarriko zen prozesu luzeago eta jarraitu batean.

Beraz, gaizki hartuak eta desegokiak izan zitezkeen kudeaketa-eredu abstraktuak aurreratu ordez, garapeneko hurrengo faseetan (oinarrizko proiektua eta gauzatzeko proiektua, obra eta erabilera-proiektua) agente ezberdinen segimenduari eta parte-hartzeari jarraipena ematera bideratutako metodologia proposatzen da.

PROZESUAREN JARRAIPENA

Prozesuko parte-hartzearen jarraipenari esker, xehetasun gehiagorekin jorratu ahal izango dira hitzartu eta definitu beharreko kudeaketa-alderdi ezberdinak, garagardotegiaren ohiko funtzionamenduaren inguruan lanerako dinamika etengabeak sortzeko ere balio dezaketenak.

Gainera, egun elkarren artean harreman gehiegirik ez duten pertsona eta erakunde erabiltzaileen arteko komunitatea osatzen lagunduko du. Horrela, ekipamendu berriarekiko koordinazioa eta konpromisoa erraztuko dira. Horretarako, honako abiapuntu hauek jorratzea proposatzen da:

Tartean esku hartzeko jarrera eta gaitasuna

Batez ere kontuan izatea egun parte hartzen dutenek prozesuan jarraitzeko duten konpromisoa. Susmoak, nekeak, kezkak edo motibazioak identifikatzea eta horien arabera prozesuari forma ematea.

Halaber, interesgarria da hurrengo faseetan prozesua jarraitzeko komunitateak duen prestaketa ebaluatzea eta behar izanez gero hobetzea. Badakigu fase horiek zeintzuk diren? Proiektuaren balioak beste tekniko edo kudeatzaile batzuei transmititu ahal izateko eta horiek galtzea saihesteko, behar adina ezagutzen da proiektua?

Lanerako bideak eta formatuak

Hurrengo fase guztietan zehar segimendua eta parte-hartzea bideratzeko bideak eta mekanismoak ezartzea eta, era horretan, hurrengo puntuan proposatzen diren kudeaketa-alderdiak zehazten jarraitu ahal izatea.

Jarduera-motak eta horien erritmo egokia identifikatzea, Getxo Kirolakek zenbateko maiztasunarekin eta zein bidetatik transmitituko duen informazioa, interesatutako aldean artean bi noranzkoko komunikazioa nola egin daitekeen, e.a. Hona hemen egin daitezkeen jarduerak:

- Partekaturiko egutegia sortzea, proiektuaren gertaera nagusiak adierazteko eta etorkizunean garagardotegiaren eguneroko jarduerak sartu ahal izateko.
- Lanerako aldizkako bileren dinamika abian jartzea, proiektuaren aurrerapenari jarraipena egin eta kudeaketa definitu ahal izateko, etorkizunean ohiko praktika bilakatu ahal izatearekin batera.
- Getxo Kirolaketa eta pertsona interesatuen artean komunikatzeko bide erraza eta zuzena sortzea.

Garapen tekniko parte-hartzailea

Proiektuaren hurrengo faseak garatzeko inplikaturiko diren enpresak edo profesionalak garagardotegiaren komunitatearekin nola erlazioatuko diren definitzea, lan teknikoa ikusten utziaz eta haien ekarpenei erantzunaz.

PROZESUAN ZEHAR DEFINITU BEHARREKO ALDERDIAK

Proiektuak kudeaketaren inguruko alderdiak jorratzeko aukera ematen du. Era horretan, proiektuan egun parte hartzen duten pertsonen arteko harremanari eutsi behar zaio, eta adostasuna bilatu behar da gunea erabiltzen dutenen eta erabiliko dutenen ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuta.

Identitatea

Ekipamenduaren identitatea bera berrikustea, hiriaren aurrean nola aurkezten den eta zer eskaintzen duen.

Zer izen izan behar luke eraikin berriak?
“Garagardotegi” gisa iraganari eusten dio?
Zer-nolako erabilera edo kualitate berriak ditu?

Erabaki eta erantzukizun mailak

Garagardotegian inplikaturiko agente bakoitzaren autonomia edo erabaki maila kontuan hartzea.

Zer erabakitzen du Getxo Kirolakek eta zer komunitateak?
Komunitateak bere kabuz zenbait alderdi kudea ditzake?
Zeintzuk?
Zenbateraino esku har dezake komunitateak partzelan eta eraikinetan?
Nork ditu giltzak eta zein lekutakoak? Nola kudeatzen dira sarrerak malgutasuna eta segurtasuna izatearren?

Lagatze eta ekonomia mailako modalitateak

Era guztietako taldeei guneak eta instalazioak lagatzeko irizpideak aztertzea.

Zein baldintzatan uzten zaie irabazi asmorik gabeko klub eta elkarteei?
Gune horretan klubek eta elkarteek dirua ira-

baz dezakete eta finantza daitezke?
Zein baldintzatan uzten zaie irabazi asmoko enpresa edo proiektuei?
Erabilera gai edo arlo zehatz batera mugatzen da edo jarduera-motak ireki daitezke?

Erabilera-baldintzak

Instalazioak erabiltzeko eta zaintzeko irizpideak definitzea eta erregelamendu edo barne araubidean islatzea.

Zein alderdi zaindu edo errespetatu behar dira denek lekuaz gozatzeko aukera izan dezaten eta leku hori degrada ez dadin?
Nola arautzen dira erabilera-baldintza horiek?
Nola erabakitzen eta berrikusten dira arauak?
Komunitateak horretan esku har dezake?

Komunitatearen dinamikak

Komunitatearen eta Getxo Kirolaketen artean komunikatzeko eta elkartzeko dinamikak ezartzea, funtzionamenduaren gaineko berrikuspena edo diagnostikoa egiteko.

Nola egin daiteke proiektuaren aurrerapenei edo espazioaren funtzionamenduari buruzko segimendu egokia?
Zer egin daiteke garagardotegia erabiltzen dutenak elkar ezagutzeko eta elkarren artean koordinatzeko?
Nola bideratzen dira kexak edo proposamenak?
Nola koordinatzen da jardueren eta erreserben egutegia?

Jarduerak eta proiektuak

Funtzionatzeko moduak aztertzea, jarduera berriak garatzea eta erabilera-aukera berriak bilatzea errazteko.

Gainerako komunitateari eta Getxo Kirolak-i edonork proiektuak edo ideiak proposatzeko formatu erraz eta arinik badago?
Nola arindu daiteke jardueren proposamenak onartzea?

ZENBATESPEN EKONOMIKOA

1. AUKERA

KAPITULUA	1. FASEA	2. FASEA
1 AURRETIKO EKINTZAK	8,658.22	2,164.55
2 ERAISPENAK	12,804.67	1,422.74
3 ZIMENDATZEAK	48,593.61	32,395.74
4 EGITURA	249,404.89	166,269.92
5 ITXITURAK	153,373.13	38,343.28
6 ESTALKIA	59,849.03	19,949.68
7 BARRUKO BANAKETAK	35,191.78	8,797.94
8 ESTALDURAK ETA AMAIERAK	69,182.33	37,252.03
9 INSTALAZIOAK	72,301.37	18,075.34
10 ENERGIA ETA IRAUNKORTASUNA	78,917.48	13,926.61
11 KANPOKO EREMUAK	16,183.85	64,735.39
GUZTIRA	804,460.34	403,333.24

1. AUKERA

1. FASEA:

ERABILERA: egungo B zona erabiltzen jarraitzen da.

ERAIKUNTZA: A zona gauzatuko da.


Eraikitako eremua = **760 m²**

2. FASEA:

ERABILERA: A zona erabiltzen hasiko da.

ERAIKUNTZA: B zona gauzatuko da.

Eraikitako eremua = **100 m²**



2. AUKERA

KAPITULUA

1	AURRETIKO EKINTZAK
2	ERAISPENAK
3	ZIMENDATZEAK
4	EGITURA
5	ITXITURAK
6	ESTALKIA
7	BARRUKO BANAKETAK
8	ESTALDURAK ETA AMAIERAK
9	INSTALAZIOAK
10	ENERGIA ETA IRAUNKORTASUNA
11	KANPOKO EREMUAK

1. FASEA

8,799.00
11,567.00
65,845.00
337,947.00
155,867.00
64,877.00
35,764.00
86,532.00
73,477.00
75,483.00
65,788.00

GUZTIRA

981,946.00


2. AUKERA

1. FASEA

ERABILERA: B zonan aldi baterako karpa jartzea.

ERAIKUNTZA: A zona gauzatuko da.

Eraikitako eremua =860 m²



KREDITUAK

Erakunde sustatzailea: Getxo Kirolak

Lehendakaritza: Álvaro González

Zuzendaritza Nagusia: Karitte Alegria

Getxo Kirolakeko taldea: Asier Arévalo (Comunicación), Sorne Esturo (Arquitectura)

Aholkularitza Teknikoa eta Aurreproiektuaren Erredakzioa: Ecosistema Urbano Arquitectos SLP

Zuzendaritza: Jose Luis Vallejo, Belinda Tato

Talde teknikoa: Jorge Toledo, Marco Rizzetto, Luisa Zancada, Antonella Milano, Carlos León, Marta Muñoz, Maria Vittoria Tesei, Sophia Arbara, Cristina Rodríguez Barrado, Volen Guertchev, Claudiane Bilodeau, Julia Casado

Argazkiak: Emilio P. Doitzua

Antropologiako aholkularitza: Hector Grad, Leticia Hani

Komunikazioko aholkularitza: Arantxa Sáinz de Murieta, Asier Amezaga Albizu, Asier Gallastegui

ESKER ONAK

Ainhoa Alonso, Aitor Miñambres, Aitor Uriarte, Alberto Olalde, Alberto Zubeldia, Álvaro González, Amaia Ibarretxe, Ana I. Puente, Arantza Carrera, Asier Arévalo, Beatriz Vargas, Ekain Larrinaga, Eva Cisneros, Francisco Javier Delgado, Francisco Jeures, Francisco Leal, Gorka Laizola, Gorka Zabala, Gurutze Alberdi, Heriberto Díez, Ibon La cruz, Iñaki Fernández, Iñaki Ortego, Irene Tovani, Isidro Padró, Javier García, Jon Gaubeka, Jon J. Burrutxaga, José Luis Martínez, Joseba Aranguren, Karitte Alegria, Kepa Andoni, Luciano Vicente López, Miren Abrizketa, Miren Sánchez, Nikola Elorriaga, Oscar Vixent, Patricia Alkorta, Raúl Rivas, Ricardo González, Rodolfo Arronde, Rubén Darío Raldes, Salustiano González, Sorne Esturo, Unai Amezaga, Urko Arregui, Vanessa Guzmán, Veronica Grande.



EADURA



Getxo
KIROIAK *bizi ezazu*

www.thinkingfadura.eus